



BARREN
TOKIKOM

Elgoibarko kirolaren lemazain

Ramon Mugica

ERNE

“SD EIBAR” BIRUSA HEDATZEN ARI DA...



EIBARRERA ABONATU

Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu

Informatu zaituzte: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831



SDEIBAR

kutsatuzureafizioa

SALENTO BAR PIZZERIA

Etkez etxeko banaketa
aste guztian zehar



**Gabon zoriontsu eta
urte berri on!**



*2017a ondo hasi
nahi baduzu
etor zaituzte Salentora
urte berri gauan
00:30etatik aurrera
goizaldera arte
zabalik izango dugu eta!*

BANAKETAREN ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera:

20:00etatik 23:00etara

Ostiral eta larunbatak:

20:00etatik 23:30era

Igandetan:

13:00etatik 16:00etara

20:00etatik 23:00etara

943 740 196

Eguneko menua: astelehenetik ostiralera

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651



%50eko
deskontua
dendako artikulu
guztietan,
negozioa ixteagatik.

Hemendik aurrera
lan-enkarguak
telefonoz
egingo dira

686 224 421

Trenbide kalea, 11ko lokala salgai



ENEKO ITURBE

***“Ez al duzu uste beltz kolorea alde batera uzteko garaia dela?
Ni, behintzat, guztiz aspertuta nauka kolore horrek”***

Kaixo, Ana! Gaur ere Madrildik idazten dizut. Aitortu beharra daukat, urteko garai honetan, hiri honek, beste gehienek bezalaxe, xarma berezi bat duela: piztu dituzte Gabonetako argiak, apaindu dituzte kaleak... Zoragarria da!

Gabonetako xarmari helduta, Gabonetarako aproposak izan daitezkeen looken inguruan hitz egitea gustatuko litzaidake gaur zurekin. Beraz, adi egon!

Ez al duzu uste beltz kolorea alde batera uzteko garaia dela? Ni, behintzat, kolore horrek guztiz aspertuta nauka jada! Sikiera kolore bizi eta indartsuko osagarriez jolastuko bagenu... beste zerbait izango litzateke, ezta? Ospakizun egunak dira; bete ditzagun kaleak alaitasunez!

Urre, zilar edo kolore metalizatuen inguruan, zer esan ge-

nezake? Ba, nire ustez, 2016. urte hau ez dela izan urre kolorearen urtea. Izan ere, hainbat eta hainbat kolore metalizatirik ikusi ondoren, urre kolorea glitter munduan oinarritzkoegia bihurtu dela uste dut, eta zilar koloreak hainbesteko garrantzia hartzeak ere protagonismo handia kendu diola esango nuke... Hortaz, argi daukat erantzuna: agur urre koloreari!

Lookak aukeratzeko orduan, egin aurrera edozein motatako arroparekin! Baina hori bai: horrelako egun seinalatueta, Gabonetako argiak baino horterago irtetea ez dakit aukera egokiena den... Askotan, hoberena arrunt eta simple joatea da, benetan! Eta Bestela, zer jantzi ez badakigu, Olentzero eta Mari Domingiri galdetu, agian beraiek dute erantzuna!

Aizu, Ana, zuk bidali al diezu opari zerrenda?



ANA ALBERDI

***“Iruditzen zait ez nik bakarrik, baizik eta askok eta askok joko dugula beltzera
Gabon hauetan; innobatzera, badakizu”***

Gainean dugu Eguberria, Eneko, eta Gabon zahar eguna. Gezurra dirudi, baina azken urte hauek atzaparretatik ihes egin didatela sentitzen dut. Hemen gaude, beste urte batez Gabonetako afari horietarako lookak pentsatzen.

Miresten dut zure proposamena, beltza alde batera lagatzeko ideia hori. Edo urre kolorea baztertzeke ikusten duzun beharra. Ni pertsonalki ez naiz batere koloretsua izaten Gabonetan, are gutxiago erabiltzen ditut “brilli-brilli” tankerako jantziak. *Less is more* lemaen zalea naiz; jada ezagutzen nauzu apur bat.

Eta zure gomendioetatik urrun, iruditzen zait ez nik bakarrik, baizik eta askok eta askok joko dugula beltzera Gabon hauetan; innobatzera, badakizu. Baina nire defentsan esan beharra daukat aurtengoan pisuzko arrazoi batengatik izango dela,

izan ere, Gabon hauetan birziklatzera joko dut. Duela pare bat urteko soineko zoragarri bat dut armairuan estreinatzeke, beraz, nire buruari proposatu diot behingoagatik ez naizela Gabon zahar gaueko kontsumismoan eroriko.

Baina zurekin bat nator esaten duzunean beltza alde batera utzi beharko genukeela, edo, gutxienez, beltza berrasmatu, beste ukitu bat eman. Aukeran *burgundy* edo ardo kolorera pasako nintzateke. Emakumeoi oso ondo ematen digun kolorea dela iruditzen zait, sentsualitatearen eta elegantziaren artean geratzen den kolore horietako bat; fina, baina indartsua.

Gizonezkoen kasuan, ordea, ez naiz trajeen aldekoa Gabon zahar gaberako; aukeran, informalagoa nahiago.

Gu bikote gisa definitzekotan, atrebimendua eta sinpletasuna garela esango nuke, ez duzu uste, Eneko?

Orain irakurleek egin dezatela euren apustua.

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Gauzen Internet

nomikoa izango baitu. Honen arabera, gure etxeko hozkailuek barruan daukaten jatekoa gastatu ahala gure partez erosketak egin edo iraungitzera doazela esango digute; lorategietan txertatutako gailu txiki batzuk landareen ur, bitamina, eguzki, ongarrri... mailak neurtu eta mezuak bidaliko dizkigute beharrezko neurriak har ditzagun; korrika egiteko zapatilek egindako ibilbideak (distantzia, denbora, desnibela...) gorde eta Internet bidez helaraziko digute, hauek automatikoki aztertu eta entrenamendu planak proposatuz; etxetresna elektrikoak Internet

*“Hortzetako eskuilak
kariesik daukagun begiratu
eta dentistarenean ordua
hartuko digu”*

bidez kontrolatuko ditugu: piztu eta itzali, etxeko tenperatura ezagutu, labearena; inork tinbrea joz gero mugikorrean mezu bat jaso bisitariaren argazki eta guzti; hortzetako eskuilak kariesik daukagun begiratu eta dentistarenean ordua hartuko digu...

Sarean aurkitu ditudan adibideetan atentzioa deitu didan bat “dash button” delakoa da: edozein lekutan itsasten den botoi bat da, komunean adibidez, eta, papera gastatzen ari dela ikusten dugunean, botoia sakatu eta, automatikoki, Interneteko denda batean paper gehiago erosiko “da” eta etxera bidaliko digute zuzenean. Hala, produktu bakoitzerako botoi bana izan genezake.

Aipatu ditudan adibide hauek, itxuraz, existitzen dira, eta erosi egin daitezke jandak.

Nolako arrakasta eta noiz izango duten batek daki, baina horrelako gauzetara ohitzen joan beharko dugula dirudi.

Azkenaldian dezente entzuten ari naizen izena da IoT ala *Internet of Things* eta hori omen da informatika munduan datorren hurrengo gauza haundia, mundu honetako gurek diotenez. Antza, ‘laster’, inguruan daukagun gailu gehienak eta oraindik ezagutzen ez ditugun beste asko, Internetera konektatuta egongo dira. Informazio hori jasotzen duten enpresek, teoriarik, guri zerbitzu hobeak, pertsonalizatuak, emateko erabiliko dute, baina batek daki beste zenbat erabilera emango dioten, informazio horrek izugarritzko balio eko-



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
EuskoLur Erakundearen Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak atalean adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Anso, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► IRUKURUTZETA, MORKAIKO ETA MOTORDUNAK

Irukurutzeta mendilerroari buruz salaketa bat egitera gatoz, eta Morkaiko mendizale elkarteari babeska eskatzera.

Orain dela urte batzuk gogor jo zenuen Atxolin eta Idoi arteko mendi-bide bat zela eta ez zela. Mendi horren egoera askoz larriagoa da orain, eta txarrera egiten ari da gainera. Mendi gainetan bakarrik ibiltzen zarete, ala? Toki askotan mendia txikituta eta hondatuta dago. Ikusi Pol-Poletik gainera doan bidea. Hondamendia. Gune batzuetan lubakiak daude. Pol-Poleko bidegurutzeta hondatuta dago! Zazpi metroko diametroko bainera dago, motorrek egindakoa. Irukurutzetatik basora sartuta, Elgoibar aldera, kanalak edo ubide pila bat daude. Eta Elgoibartik gainera doan bidea, Sargoatetik gora doana, dena hondatuta eta txikituta dago; eguraldi hezearekin oso arriskutsua egoten da. Pago Bedeinkatutik Ozetara doazen basoak ere hondatuta daude, ubidez josita.

Non zaudete mendizale sutsoak? Hau ez da berria. Sargoatetik Pol-Pol eta Goralaino 30 motordun zenbatu ditugu aste-

buru batean. Eta orain, aurpegi gogorarekin, Elgoibartik Karakatera eta Irukurutzetara joaten hasi dira. Gehienak zuen herrikoak dira, eta besteak Urola aldekoak eta Bergarakoak.

Jakin ezazue mendian ere metro koardro gehienek jabea dutela, eta mendi honetan ere lur gehiena pribatua dela. Gureak dira lurrak eta pistak; basobideak geuk egin ditugu, eta geuk ordaindu. Eta abereak ere geuk jarritakoak dira. Noiz salatu behar duzue 'izurri beltza' (motordunak)? Iskanbila galantak sortzen dira mendizale eta jabe batzuen artean, eta kontra egitean honelakoak esaten dizkigute: "Eskriturak ekarri! Orduan itxi lurrak! Hau denona dok!, Ni ere baserrikoa nok... Gainetik pasatuko diat!"... Besteen lurrak hondatzen dituenak ala baimen gabe ibiltzen denak, ze izen dauka?

Irailean jabe bati eraso egin zion motorzale batek. Eskerrak beste batzuk agertu ginen. Imajinatzen duzue ze iskanbila, ezta? Geu lurren jabeak, eta eurek hartze-koekin? Hori ez da gertatuko. Gu gure mendian ibiliko gara, eta agian, topo egingo dugu. Eta orduan? Hori ez da gure

ardura. Salaketak daude Bergaran, Sorailuzen eta Elgoibarren, baita Aldundian ere. Ez dezan inork esan kexarik edo salaketa-rik ez dagoenik. Zuek ere berdina egin beharko zenukete. Eta, zelan leike Enduroren kontra ez egitea? Motorzaleei azken deia: alde hemendik, hondamena zarete!. Gure mendien izurri beltza. Ibili herriko enparantzian, hori bai da denona-eta! Edo zuen etxeko eskaileretan edo zuen baserri inguruan. Ez zaituztegu ikusi ere egin nahi.

Julian Ezenarro

► JAIOTZA TXAPELKETA

Olentzero rokeroa, Maria astronauta, Errege Magoak bizikletan, palmera okerrik faltan bota ditut. Soberan, oster, perfekzio eta irabazteko grina. Galdetu nion haur bati nolatan ez ziren aurkeztu aurten. Erantzuna motza eta garbia: 'Zertarako?' Esaldi errepikatua da. Gabonak umeentzat dira. Utz diezaiegun ba ilusio eta irudimena, irrifar eta ametsak, horietaz osatuta dagoen magia mantentzen, ondo dakigulako horrek kaduzidade fetxa daukala. Jai zorionsuak!

Itziar Irureta Unanue

ZURE SEMEA EDO ALABA ZORBEAN JAIOTAKOA BADA
ETA BERAK DAUKAN ONENA GARATUKO DUEN HEZKUNTZA
ESKAINI NAHI BADIOZU, HURBILDU ESKOLA EZAGUTZERA.
DEITU 913740879 ZENBAKIRA EDO IDATZI
ZMENDARITZA@ELGOIBARHE.NET HELBIDERA
ETA ZUREZAT BISITA ANTOLATUKO DUGU.
EZ ZARA DAMUTUKO!



elgoibarko
herri eskola

Jendetza batu zen Anjel Bazterretxeari eskerrak emateko ekitaldian



Jendetza handia batu zen joan zen domekan Mendaron Angel Bazterretxea abadeari egindako esker on ekitaldian. 54 urtean Mendaroren alde egindako lana eskertzeko, familia argazki handi bat atera zuten Herriko Enparantzian, Bazterretxeari oparitzeko. Txalaparta soinuekin hasi zen ekitaldia, eta ondoren, Mikel Laboaren 'Txoriak txori' abestia kantatu zuten bildutakoek, denek elkarrekin. Ekitaldi xumea bezain hunkigarria izan zen.

Galdeketa egiteko sinadura bilketari ekingo dio bihar Gure Esku Dagok

2017an galdeketa egiteko lanetan hasita dago Elgoibarko Gure Esku Dago taldea, eta bihar egingo dute galdeketa galderaren aurkezpena. Galdeketa egin ahal izateko 1.500 sinadura behar dituzte, eta bihar ekingo diote sinadurak biltzeari. Herritarrei dei egin diete biharko ekitaldira agertzeko, izan ere, talde argazkia ateratzeko asmoa dauka taldeak. 13:00etan izango da ekitaldia, Kultur Etxe aurrean.



Urrezko ezteiak egin dituzten sei bikote omendu dituzte Jubilatuen Astean

Jubilatuen Astearen barruan hainbat ekimen egin dituzte, eta horietako bat 2016an urrezko ezteiak ospatu dituzten bikoteen omenaldia izan da. Abenduaren 1ean egin zuten 80 urtetik gorakoentzako bazkaria, eta ekimen horren barruan omendu zituzten aurten urrezko ezteiak ospatu dituzten sei bikote. Bazkaritarako, bestalde, 180 bat jubilatutako bildu ziren.

13.174 kilo elikagai batu zituzten Elgoibarren eginiko janari bilketan

Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak jakinarazi duenez, elikagai bankuarentzat 12.524 kilo elikagai batu zituzten azaroaren 25ean eta 26an Elgoibarren egin zuten janari bilketan. Sanlo eta C.D. Elgoibarrek ere bat egin zuten deialdiarekin eta 450 kilo eta 200 kilo elikagai batu zituzten, hurrenez hurren. Elgoibarren jasotzen diren elikagaiak Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen egoitzara eramaten dituzte. Premia larrian dauden familien artean banatuko dituzte gero, Gurutze Gorria moduko erakunde laguntzaileekin lankidetzan. Aurtengo janari bilketan 126 boluntario aritu dira lanean, eta Gizarteratze Mahaiak eskerrak eman nahi dizkiete guztiei.

Bukatu dituzte Trenbide kaleko obrak, eta Zizilongo pasabidea ere prest dago

Sigmako josteko makinaren ondoko pasabide berria eta igogailua erabiltzeko moduan dira dagoeneko. Igogailua gau osoan egongo da martxan, herriko beste igogailuak bezala, eta hiru leku desberdinetan hartu ahal izango da: pasabidearen goialdean, autobus geltokiaren ondoan, eta Sigmako probalekuan dagoen aparkalekuan. Era berean, Zizilongo pasabide berria eraikitzeko lanek iraun zuten bitartean lekuz aldatu zuten autobus geltokia ere jarri dute bere ohiko lekuan. Trenbide kalean, bestalde, autoentzako aparkalekuak berri eta kale osoa berrurbanizatu dute. Euskotrenek Elgoibarko Udalarari lagatako lurretan daude aparkalekuak, eta Elgoibarren trenbide-sarearen integrazioa hobetzeko lanen barruan egin dituzte lanok.



Elgoibarko Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleek primerako emaitzak lortu dituzte EuskoSkills olinpiadetan



Emitza ezin hobekak lortu dituzte Elgoibarko ikastetxeetako ikasleek EuskoSkills olinpiadetan. Elgoibarko Meka eta IMH ikastetxeetan jokatu ziren probetan bertako ikasleak izan ziren nagusi. Mekako probetan 21 ikasle lehiatu ziren, eta bertako ikasleek eskuratu zituzten lehen postuak. Autoko teknologia proba Ander Lezertuak irabazi zuen, eta autoko margotze lanen proba Ion Esnalek. Aritz Aldalurrek irabazi zuen soldadurarekin lotutako proba, eta kolpe-leungo konpontze lanak egin behar zituzten proban Mekako bi ikasle lortu zituzten aurreneko bi postuak: Iker Leirok eta Iker Alberdik. IMHk, berriz, CNC tornu proba antolatu zuen, eta hor ere ikastetxe bertakoak nabarmendu ziren. Eneko Barkinek lortu zuen urrezko domina, eta Ion Iriondok zilarrezkoa. Irabazleek astelehenan jaso zituzten sariak Tknika zentroan egin zuten sari banaketa ekitaldian. Ikasle hauen hurrengo erronka SpainSkills proban parte hartzeko prestatzea izango da. SpainSkills olinpiadak Madrilan jokatuko dira, martxoaren 1etik 3ra.

Hondakinak kudeatzeko sistema intelijentea saritu dute enpresa industrialen hirugarren ideia lehiaketan

Bederatzi egitasmo aurkeztu dituzte aurten TKGune Fabrikazioa Gazteentzako Enpresa Industrialen Ideia Lehiaketarako, eta epaimahaiak Mikel Diez La Salle errenteriarrek eta Krystof Kwiatkowski poloniarrek aurkeztutako eOntzia proiektua saritu du. Elektronikako ikasle ohia da lehenengoa, eta informatikako ikasle ohia bigarrena. Eurek azaldutakoaren arabera, zaborrontzietan jarriko luketen sensore baten bidez zaborrak biltzeko sistema eraginkorragoa izango litzateke. Izan ere, web aplikazio batean jasoko litzukete gailu elektronikoak bidalitako datuak: zaborrontzien zabor-maila, bateriaren maila eta GPSari esker ontzia kokapen zehatza, besteak beste. Informazio hori web orrian grafikoki eta mapen bidez ikusteko aukera izango litzateke denbora errealean, eta hala, ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartu ahal izango litzukete arduradunek. IMHko irakasle Roberto Altzerrek nabarmendu du aurtengo lehiaketa irabazi duen ideia industrialia izateaz gainera ideia berritzailea ere badela. "Bete-



betean sartzen da 4.0 industria delakoan. *Internet of things* edo gauzen Interneta deitzen diotenaren adibide garbia da. Izan ere, gauzak hobetu ahal izateko informazio zehatza edukitzea ezinbestekoa da, eta aukera hori eskaintzen du eOntzia proiektuak", adierazi zuen aurkezpen ekitaldian. Zaragozako Don Bosko Sarrietan ere saritu dute eOntzia egitasmoa.

Elgoibarko Udalak Urrezko Bikain ziurtagiria jaso du

Euskararen Kalitate Ziurtagiriak euskararen presentzia, erabileria eta kudeaketa egiaztatzen du. Ziurtagiriak hiru maila ditu, eta Elgoibarko Udalak goi mailakoa lortu du, Urrezko Bikain Ziurtagiria, alegia. Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da Bikain.

Bikain ebaluazioaren helburua arlo horretan adituak diren kanpo ebaluatzaile talde baten bidez, erakundea lau ardatzetan ebaluatzeak. Talde ebaluatzaileak, 18 aldagai neurtu ditu lau ardatz nagusitan bilduta: komunikazioa eta irudi korporatiboa, kanpo harremanak, barne harremanak eta hizkuntza kudeaketa.

Bikain euskararen kalitate ziurtagiria 2007an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak eta, batik bat, enpresa arloko erakundeak, ikastetxeak, euskaltegiak eta elkarteak izan dira orain arte ebaluazio prozesua aurrera eraman eta ziurtagiria lortu dutenak. Udalei dagokienez, ordea, aurtengora arte, bost izan dira urrezko Bikain lortu dutenak.



Bikain ebaluazioak erronka berriak dakartzkio Udalari; izan ere, jasotako txostenean argi agertzen dira zeintzuk izan daitezkeen aurrera egiteko proposamenak eta giltzarriak. Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagirien banaketa Donostian egingo da aurten; Kur-saal Jauregia izango da abenduaren 19an.



Grafiti tailerra egin dute Gaztelekuan

Elgoibarko Gaztelekukoek grafiti tailerra egin zuten joan zen zapatu goizean. Dozena bat gaztek hartu zuten parte, eta giro onean pasatu zuten goiza. Aurtengoan Euskararen Nazioarteko Eguneko lemarekin bat egin dute: Jalgi hadi plazara esaldia margotu zuten San Roke eta Basarte artean dauden zutabe batean, autopistako zubipean.



Idi probak egiten dituzten bakoitzean, egunetan uzten dituzte harriak probalekuan: “Sigmako probalekuan idi probak egiten dituztenean ez dituzte harriak jasotzen, eta egunetan uzten dituzten han, aparkalekuak kentzen. Herri honetan ez da erraza aparkalekuak aurkitzea, beraz, ez zaigu ondo iruditzen dauden apurrak kentzea. Hurrengorako kontuan hartzea eskertuko genuke, eta proba amaitzen den unean bertan harriak bere lekura eramatea”.



Erretxindiko aparkalekuak ez dituzte errespetatzen: “Erretxindi auzoan ondo markatuta daude aparkalekuak, baina auzotar batzuek ez dituzte errespetatzen. Espaloi gainean uzten dute autoa, oinezkoentzako bidea eta han dagoen dendarako sarrera oztopatuz. Auzotar horiei eskertuko nieke ondo aparkatzea, eta bestela, udaltzainei eskatu nahi diet isunak jartzea”.



Basarte auzoan autoak gaizki aparkatuta egoten dira: “Basarte auzoko bizilaguna naiz, eta ez da autoak modu honetan aurkitzen ditudan estreinako aldia. Auzotar batzuek irteerarik gabeko errotonda honetan uzten dute autoa, hor aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen marra horiaren gainean. Errotonda horrek ez dauka irteerarik, eta askok buelta emateko erabiltzen dugu. Auto txikiekin agian ez da arazorik egongo, baina auto familiarra dugunok buelta eman ezinda geratzen gara, gaizki aparkatutako auto horiek traba egiten dutelako. Azkeneko aldian atzeraka egin behar izan nituen hogeitun bat metro, buelta hartzeko lekua aurkitu arte. Udaltzainei eskatu nahi diet Basarte auzora sarriago etortzeko horrelakoak zaintzera”.

Arregitorreko parke arrosa txakur kakaz beteta egoten da: “Arregitorre auzoko parkea, zelaia, jarleku azpiak... Dena txakur kakaz beteta egoten da egunero. Udalak uste dut jarri dituela txakur-jabeentzat arauak, eta orain arau horiek betearazi egin beharko lituzke”.

Santa Klara auzoan zuhaitz bat erori zen, eta berehala erretiratu zuten handik: “Txalo bat eman nahi nioke Udalari, gurekin erakutsi duen jarreragatik. Santa Klara auzoan zuhaitz bat erori zen mojen komentu aldera, eta Udalean abisua eman nuen. Berehala etorri ziren Udaleko langileak eta hurrengo egunerako erretiratu zuten eroritako zuhaitza. Eskerrak eman nahi dizkiet”.

Txalo handi bat Parrokiako Katekesiari, jaiotza lehiaketa antolatzeagatik: “Aurten ere oso ondo joan da jaiotza lehiaketa, eta eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaileei. Partaide guztientzako egoten dira opariak, eta hori oso ondo dago umeak motibatuzeko. Oso ondo pasatu dugu aurten ere, bai jaiotza egiten eta baita lehiaketa egunean bertan ere. Segi horrela!”.



“Elgoibarko kirol taldeak oso ondo baloratuta daude Federazio guztietan”

► **RAMON MUGICA** UDAL KIROL PATRONATUKO ZUZENDARIA

Ramon Mugicak 25 urte daramatza lanean Udalean, Kirol Zerbitzua martxan jarri zenetik, kirol teknikari bezala. Udal Kirol Patronatua 1996 urtean eratu zenetik bertako zuzendaria da. Nor aproposagorik, hortaz, kirolak urte guzti hauetan Elgoibarren izan duen bilakaeraren errepasoa egiteko. Kirolak garrantzi eta pisu handia du egun Elgoibarren. 19 kirol-elkarte daude 11.000 biztanleko herria izan arren, eta 4.000 bazkidetik gora ditu Kirol Patronatuak. Duela 25 urte hasi zen kirolaren loraldi hau.

- ASIER ORBEA -

◆ Orain dela 25 urte hasi zinen Elgoibarko Udalean lanean, kirol arloan.

1991ko ekainean izan zen, bai. Udal Kirol Zerbitzua sortzea beharrezkoa zela ikusi zuen Udalak, batez ere Eskola Kirola koordinatzeko, eta baita herriko kirol taldeei laguntzeko, zein kirol jarduera be-

riak sustatzeko ere. Asmo horiek gauzatzeko kirol teknikari lanpostua atera zuen Udalak, eta neu aukeratu ninduten. Jardunaldi erdiko kontratuarekin hartu ninduten Udal Kirol Zerbitzuaz arduratzeko.

◆ Udal Kirol Patronatuaren hazia izan zen hortaz Udal Kirol Zerbitzua?

Bai. Olaizaga kiroldegia 1988an jarri zuen martxan Udalak, baina kudeaketa pribatuarekin funtzionatzen zuen. 1996ra arte mantendu zen kudeaketa pribatua. Udal Kirol Zerbitzutik ikusi genuen kirol arloan gauza asko zeudela egiteko, eta horiei bide emateko eraiki zen Min-

txetako kirol gunea 1993an. Lanean hasi nintzenerako eraikuntza lanak martxan zeuden arren, proiektuari hainbat egokitzapen egin ahal izan genizkion. Gure ekarpena izan zen harmailen azpian kirola egiteko gelak sortzea. Muskulazio gela bat eta kirol jardueretarako beste bat eraiki genituen. Aldagelen eta tabernaren egituraren inguruan ere egin genituen gure ekarpenak. Taberna kantina txiki bat zen hasierako proiektuan. Horrenbestez, Mintxeta martxan jarri genuenean bi azpiegitura garrantzitsu geneuzkan, Mintxeta eta Olaizaga kiroldegia, eta horiek modu eraginkorrean kudeatzeko asmoarekin sortu zen Udal Kirol Patronatua 1996an, Udal barruko erakunde autonomo gisa. Bere helburua herritarren artean kirola sustatzea da (Udal Kirol Zerbitzuarena ere hala zen). Gainera, Udaletik klubengandik eta herritarrengandik gertuago zegoen gestioa egiten hasi ginen.

♦ **Bistan da urte esanguratsuak izan zirela kirolarentzat Elgoibarren. Erronka handia jarri zizuten artean oso gazte zirela.**

Bai, kirolak egun Elgoibarren duen pisu eta garrantziaren zutabeak jarri ziren 80ko hamarkada amaieran eta 90eko hamarkada hasieran. IVEFeko estreinako promoziotik lizentziatu berri nintzen ni, eta kirol elkartegintzatik nentorren. Futbolearen aritu nintzen lehenik, hamar urtez, Elgoibarren eta Eibarren, eta ikasketak hasi nituenean laga nuen futbola. Ikasketen azken urtean hasi nintzen eskubaloian, 1989an. Sasoi hartan sortu zuen Ales Arrietak eskubaloia taldea. C.D. Elgoibarren barruan sortu zuen, "Musillo" presidente zela. Horregatik du Sanlok kamiseta zuri-gorria. Aurrez egon ziren eskubaloia taldeak. Partidak Plaza Txikian jokatzen zituen Pelousse, esaterako. Gero, hainbat urtean ez zen eskubaloia talderik egon herrian, harik eta Ales Arrieta agertu zen arte. Lehen mailan jokatu zuen Alesek Eibarko Arraten, eta beste hainbat jokalaria elgoibartarrekin batera, Migel Angel Arozena, Patxi Aranberri... sortu zuen eskubaloia taldea. Sanloren lehen pausoak izan

ziren. Lehen entrenatzailea izan nintzen, Josean Hildagorekin batera.

♦ **Kirolaz arduratzeko pertsona kirolzalea aukeratu zuten, aditua eta aritua zinen.**

Aritua bai; aditua artean ez. Kirol elkarteak barrutik ezagutzeko aukera izan nuen, esperientzia hori baliatu nuen, esaterako, beste lagun batzuekin batera Urgazi Triatloi Taldea eratzeko 1991n, triatloia praktikatzeko hasi eta denbora gutxira. Ez genuen denbora asko behar izan Elgoibarko lehen Duatloia antolatzeke ere: 1991. urteko apirillean.

“Kirol taldeak sortzeko bultzada handia egon zen 90eko hamarkadan”

♦ **Lanerako gogoa zenuten.**

Bai guk eta baita herritarrek ere. Kirolzaleek taldetan egituratzeko gogo handia zuten sasoi hartan, eta taldeak sortzeko bultzada handia egon zen. 80ko hamarkada nahiko gogorra izan zen herrian droga asuntoa zela-eta. Egoera hari buelta emateko, garrantzitsu bihurtu ziren aisialdia eta kirola. Edozein taberna edo elkarte gastronomikotan elkartzen ziren bi lagun eta hasten baziren kirolari buruz berbetan posible zen elkarte bat sortzeko ideia izatea. Jendartean nagusitzen ari zen bultzada horri bide ematen ahalegindu ginen Udal Kirol Zerbitzutik. Gogoan daukat nola joan nintzen notaritzara bost emakumerekin Igeriketa Taldea eratzera. Igeriketa eskolan ziharduten bost umeren amak ziren. Horrelaxe sortu ziren hainbat kirol talde: Urgazi, Lagunak P.E., San Pedro F.S, Pedrusko futbol taldea, saskibaloia taldea, Txusko Moto Kluba... Kirol elkarte horiek eta ikastetxeak jarduera mordo bat antolatzen hasi ziren. Nazioarteko Xake Txapelketak 25. urteurrena bete zuen iaz, Karakateko Igoera 23.

aldiz jokatu da aurten, San Anton Pilota txapelketa ere orain dela 24 bat urte sortu zen. 1994ko ekainean Futbol 7 Txapelketaren estreinako edizioa antolatu genuen. Haur krosa ere garai horretan hasi zen. Kirol elkartegintzak *boom* handia bizi izan zuen 90eko hamarkadan.

♦ **Zein ziren kirol jarduera arrakastatsuenak?**

Udako Kirol Kanpainak sekulako arrakasta izan zuen. Umeek Eskola Kirolean egiten ez zituzten kirolak praktikatzeko aukera eskaintzea zen helburua, gazte eta helduentzat ere zabalik zegoen arren. Tenisa, eskalada, patinajea, parapentea, kanoi jaitsiera... hogeita bat kirol batzen zituen Udako Kirol Kanpainak eta 400 lagun inguru mugitzen zituen. Tenis ikastaroan, esaterako, 109 lagun izatera ailegatu ginen. Timoteo Sarasketa enpresak lagatako pista batean aritzen ginen. Arriaga industrialdean zegoen eta plastikozko lurra zuen. IMHko tenis pista 1991n egin zuten.

Gizarte aktiboagoa izateko asmoz elgoibartarre eskaini dizkiegun kirol jarduerak eta azpiegiturak gehitzeko egin dugun ahalegina handia izan da urteotan. Kirol Patronatua aitzindaria izan da azken tentenziak diren ikastaroak eskaintzen. Spinning ikastaroa martxan jartzen aurrenekoak izan ginen bailaran. 2002an inauguratu genituen Mintxetako aire libreko igerilekuak, 2008an BTT Zentroa eta Mintxetako tenis pista, 2009an jarri genituen martxan padel pista eta Mintxeta inguratzen duen oinezkoentzako zirkuitua.

♦ **Adin guztietako jendea hasi zen kirola egiten.**

Olaizaga kiroldegia aukera eman zuen emakumeek, gazteek, zein zaharrek hainbat kirol ikastarotan parte hartzeko. Mintxetako Elgoibarri egin zion ekarpenik garrantzitsuena, berriz, azpiegitura hori herri guztira zabaltzea izan zen. Harmaila azpian muskulazio gela eta aerobikekoa egiterakoan ikusi zen emakume asko, eta adin desberdinetakoak gainera, kirola egitera animatzen hasi zirela. 80eko ha-

markadan oso emakume gutxi ikusten zen kirola egiten. Sallobenten korrika egiten bizpahiru emakume ikusten ziren, jakinekook, Inma Mugerza, Gotzone Aierdi, Pitxintxunekoak, eta kitto!. Eta hortik kanpo Ego-Toki atletismo taldean zebiltzanak, Arriola ahizpak, Argiñe Gabilondo, Sonia Zambrano, Carmen Perea, Ana Tadeo eta beste zenbait. Eta Judoan ere antzera, Manu Morak eduki zuen Ibai gimnasioan emakume gutxi batzuk zebiltzan. Eta futbolearen ere Eibartarrak taldean ere beste gutxi batzuk. Emakumeak kirolera hurbildu ziren Olaizaga kiroldegiko aerobik eta igeriketa ikastaroetan eta Mintxetan mantenu gimnasia, aerobik eta spinning saioak ematen hasi ginenean. Hasieran jendeari arraroa egiten zitzaion, barre, emakumeak spinning egiteko kuloteekin eta zapatilekin ikustea, pentsa! 2000. urtetik aurrera zorionez ohikoa eta erabat naturala da hasieran deigarria zen hura. Udako Kirol Kanpainak ere garrantzitsuak izan ziren emakumeak kirolera gerturatzeko. Orduan hasitako neska eta emakume gazte asko ikusten ditut oraindik ere kirola egiten. Nik uste kirolzaletasunerako hazia erein genuela duela 25 urte. Gainera, hasierako urteetan presentziari garrantzi handiagoa ematen zion jendeak. Orain, aldiz, kirola egiten dutenek argi dute osasuna dela azken helburua.

♦ Gaur egun ezin daiteke Elgoibar kirol gabe ulertu?

Ados nago. Era guztietako 19 kirol talde daude 11.000 biztanleko herri batean. Eta ez hori bakarrik; kirol talde horiek egiten duten lana oso ondo baloratuta dago kirol modalitate bakoitzeko Federazioetan. Hau da, Federazio horiek ekitaldi bereziren bat antolatu behar badute, badakite Elgoibarko taldeak antolatzen badu ez dutela hutsik egingo, maila oso ona emango dutela.

♦ Eskola Kirolak ere lagunduko du kirolzaletasuna piztu eta garatzen, ezta?

Dudarik gabe. Eskola Kirola orain dela 25 urte martxan jarri izana ospatzen ari da aurten Gipuzkoako Foru Aldundia, eta kontuan eduki behar da, Diputazioak orain indarrean duen Eskola Kirolko ere-



dua 1975ean jarri zela martxan Elgoibarren, orain dela 41 urte! Taldekako hiru kirol eta banakako beste hainbat kirol egiten diren eredu, kirol aniztasuna, alegia. Hein handi batean ikastetxeek era boluntarioan egin duten lanari esker.

♦ Zein dira hurrengo urteetarako erronka nagusiak?

Olaizaga kiroldegiak ia 30 urte dauzka eta zaharkituta eta txiki gelditzen ari da. Egungo eskaerara nola egokitu dezakegun aztertzen ari gara. Igerilekuekin dago arazorik handiena. Eskaintzen ditugun ikastaroetan 800-900 erabiltzaile dazkagu hilabetero, eta ia erdiak, 350 lagun, igeriketa ikastaroetan dabilta. Gune hori handitzeko eta dauden beharretara egokitzeko zer egin dezakegun aztertzen ari gara. Zein diren aukera onenak eta finantziarioa nondik eskurat.

♦ 25 urte hauetan egindakotik zerk asebate zaitu gehien?

Satisfazio handia eman dit Elgoibarrek

urteotan kirol arloan bizi izan duen aldatetan ekarpena egin ahal izateak. Pozik handiena, baina, kirol taldeek duten bizitzak eta osasunak ematen dit, eta horiek zenbat lagun mugiarazten duten ikusteak. Gure laguntza txikiarekin, azpiegiturak eta diru laguntzak, lan handia egiten dute. Antolatzen ditugun ikastaroetan emakume askok parte hartzeak ere asko pozten nau. 60 + egitasmoaren arrakasta ere pozgarria da. Ez nuke ahaztu nahi Elgoibarko politikariek kirola sustatzeko izan duten sentsibilitatea eta prestutasuna. Alkate eta kirol zinegotzi guztiek eman diote garrantzi handia kirolari. Era berean, hemen lanean izan ditugun edo ditugun langileek eta monitoreek Patronatuarekiko izan duten atxikimendua eta zerbitzua eskaintzeko erakutsi duten gogoia eta profesionaltasuna ere nabarmendu nahi ditut. (elkarrizketaren bertsio luzea barren.eus-en)



Mari Domingiri eskainitako kantua sortu dute Elgoibarko Izarrak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak, elkarlanean

Zorionekoa da Mari Domingi. Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek eta Elgoibarko Izarrako aisialdi taldekoek kantu bat sortu dute bere omenez, eta bideoklipa ere egin dute, Zulueta baserrian Mari Domingirekin berarekin grabatutako irudiekin. www.barren.eus helbidean daukazue ikusgai.

“Olentzerok badu bere berea, eta Mari Domingik ere merezi du beste horrenbeste”, pentsatu zuten Elgoibarko Izarrak, iazko Eguberrietan lehenengoz dantzatu zuten *Ole, Olentzero!* kantua izan zuen arrakasta ikustean. Kantu berriarekin, gainera, Elgoibarko Izarrak bere egindako balore batzuk lantzeko aukera ere ikusi zuten, genero rola eta estereotipoak amaitzeko bidean pausoak emateko aukera, alegia. Mari Domingiren figura indartu nahi zuten; Mari Domingi Olentzeroren pareko irudi erreferente bihurtu. Izan ere, Olentzero eta Mari Domingiren arteko botere-harremanak azkurea ere eragiten zien sarri, eta harreman hori orekatu premia sentitzen zuten.

Kantua sortzeko, baina, laguntza behar zuten, eta Inazio Bereziartua Musika Eskolakoengana jo zuten. Proiektu pedagogiko interesgarria iruditu zitzaizkien haiei, eta elkarlan horretatik sortu zen kantua.

Taldean sortu eta ondu zituzten melodia eta letra. Mikel Etxaniz, Aitor Nova, Juan Carlos Martin, Mikel Olaiola, Ainara Argoitia, Naiara Martin eta Ane Odriak parte hartu zuten, eta Azpeitiko



Znoisy grabazio estudioan grabatu eta ekoiztu zuten, Musika Eskolako rock taldekoak lagun hartuta: Amaia Rubio (ahotsa), Danel Legorburu (baterian), Aitor Asenjo eta Iñigo Arrese (gitarretan), Julen Perez Cortes (baxuan), Amaia Lersundi (pianoan), Alaitz Almoriza (tronboiarekin), Noemi Araujo (saxoan) eta Paul Rojo (tronpetarekin). “Esperientzia izugarria” izan dela aitortu du Aitor Novak, bereziki musikari gazteentzat, grabazio estudio batean sartzen ziren estreinako aldia izan delako guztientzat, eta horrenbestez, musika talde profesional batek egingo

lukeena probatzeko aukera izan dute-lako.

Kantua ez ezik, bideoklipa ere grabatu dute, gainera. Zulueta baserrian harapatu dute Mari Domingi bere ohiko zereginetan, eta hantxe grabatu dituzte irudiak. Grabazio egunean, “giro ezin hobea” sortu zela nabarmendu dute Novak eta Etxanizek, eta eskerrak eman dizkiete Zulueta baserrikoei “horren mimo handiz eta ondo” hartzeagatik. Orain, Daixola egitasmoan izena emandako gaztetxoak koreografia prestatzen dihardute, abenduaren 24an Mari Domingiren eta Olentzeroren aurrean dantzatzeko.



► Euskara plazara!

Euskara plaza publikora atera zuten abenduaren 2an ehunka lagunek. Euskarak 363 Egun taldeak antolatuta, Jalgi Hadi Plazara jaialdia egin zuten Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, eta herriko kale eta plazak euskaltzalez bete ziren. Elgoibarko 53 elkartetako 500 bat lagunek osatu zuten giza katea Kalegoen plazatik Maalaraino, eta gero, 15 elkartetako ordezkariak dantza, karaoke, esketx, txirigota eta bestelakoak antzestu zituzten Plazera Plazara jaialdiaren barruan. Bi orriotan jaso ditugu ekimeneko argazki batzuk. Argazki guztiak www.barren.eus webgunean.

53 elkartetek hartu zuten parte giza katean.



Euskal txirigota antzestu zuten Elgoibarko Izarrak eta Sinuosek.



Kalamua Guraso elkartekoek hainbat hizkuntzatan berba egin zuten taula gainean.



Gatiburen 'Euritan Dantzan' abestiarekin egin zuten Udalbatzako kideek



EAJ alderdiko ordezkariak 'Aldapan Gora' dantza antzestu zuten.



Musika eta umorea uzartu zituzten Mausitxako kideek.



Motorista jantzita Urnabitza taldekoak.



Eskuz Taldekoak ere, eskutik emanda.



Haizeakoek ere ez zuten huts egin giza katean.



Elgoibar Ikastolakoak Argitxorekin irten ziren kalera.



Ludo eta Kiribil ere irten ziren Elgoibarko Izarrarekin.



Loreak taldekoak ere euskararen alde agertu ziren.



Danobatek ere Euskararen Egunarekin bat egin zuten.



Herri Eskolako ikasleak kalejiran irten ziren.



en dantzan



tzatu zuten!






Matxi Itarte Urroz

2016ko abenduaren 12an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jovita Alberdi Alberdi

2016ko abenduaren 9an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Irene Unzueta Iriondo

2016ko abenduaren 12an hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



IV. URTEURRENA

Kerman Moreno Iriondo

*Mendietarantz pausoa luzea
bizitzak krudel haizea
nola gainditu, nola arindu
zu hemen ez izatea.
Zure goxoa, zure barrea
gertu beti umorea
ez hiltzen zenbat saiatzen garen
bizitzen gutxi, ordea,
gugan landatu dituzunekin
segiko dugu bidea.*

Etxekoak

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela. Haren oroimenez
IV. urteurrenako meza izango da, martitzenean, abenduak 20,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.



“Pozik nago Elgoibarren antzezteko; ilusio handia egiten dit herrian antzezteak”

▶ AITOR GISASOLA ANTZEZLEA

Orain dela 11 urte inguru hasi zen Aitor Gisasola (Elgoibar, 1983) antzerkigintzan. Aktore sena dauka, eta ondo moldatzen da bai umorezko paperak egiten eta baita paper dramatikoetan ere. Hainbat antzerki konpainiatan ibilitakoa da, eta azken bi urteetan Bilboko Alopargo antzerki taldean dihardu. Gaur gavean ‘Horacios y Curiacios’ antzezlana aurkeztuko dute Elgoibarko Herriko Antzokian. 20:30ean izango da saioa, eta sarrerak 3 euro balio ditu.

- AINHOA ANDONEGI -



Aitor Gisasola, pastela jaten. Pastelak boterea irudikatzen du obran.

♦ ‘Horacios y Curiacios’. Zertan datza antzezlana?

Bertolt Brecht-en obra bat da. Gerra eta bakearen inguruan hitz egiten du, eta gizakiaren miseriarik ere aipatzen ditu. Berziki, boterea lortzeko gizakia noraino heltzeko gai den azaltzen du; hau da, botereak nola eramaten duen gizakia galbidera. Boterea lortzeko gizakia edozer egiteko gai dela erakusten du, nolabait esateko, gizakiaren alderik zikinena agerian utziz. Obra Erroman girotuta dago. Erroman bizi ziren Horacioak eta Curia-cioak, eta euren artean borrokatu behar zuten, boterea zeinek eskuratuko zuen erabakitzeko. Baina ez zuten ohiko guda bat egin. Buruzagi bakoitzak bere taldeko bost kide inozoenak aukeratu zituen, eta horien arteko lehia izan zen. Borja Ruiz gure taldeko zuzendariak Bertolt Brecht-obra apur bat moldatu egin du, eta besteak beste, gaur egungo politikariek esandako hainbat esaldi txertatu ditugu.

♦ Zein motako obra da?

Obra bisuala da, klown eta gorputz antzerkian oinarritutakoa. 8-9 urte inguruko umeak ere etorri izan dira obra ikus-

tera eta gustatu zaie, oso bisuala delako. Musikak ere paper garrantzitsua dauka. Eszenografia aldetik nahiko sinplea da: bi jarleku, makilak eta bi pastel. Pastelak irudikatzen dute jokoan dagoen botere hori. Bilbon bakarrik egiten diren pastel berezi batzuk dira, oso ezagunak. Umorezko obra da, baina erreflexiorako tarreak ere baditu. Azken atalean, esaterako, Eduardo Gleanoren poesia bat sartu dugu, azken mezuak errezeitatzeko.

♦ Nola iritsi zara Alopargo antzerki taldera?

Borja Ruiz taldeko zuzendaria Kabia antzerki taldeko zuzendaria ere bada, eta antzerki ikastaro bat antolatuta zuten. Han eman nuen izena eta han ezagutu nituen beste kide batzuekin osatu genuen Alopargo taldea. Orain dela bi urte sortu genuen taldea. Hasieran hamar lagun ginen, eta gaur egun zazpi gara. *Horacios y Curiacios* izan da gure estreinako lana. Orain hasi gara bigarren obra bat prestatzen.

♦ Talde amateurra zarete. Antzerkigintatik bizitzea posible al da?

Batzuk saiatzen dira, baina oso zaila

da. Gehienok gure lana daukagu eta antzerkia afizio bat da. Ni orain dela 11 bat urte hasi nintzen antzerkian. Donostiako talde batekin ibili nintzen lehenengo, gero Taupadan ere eman nituen urte batzuk eta azken bi urteotan Bilbon nabil, Alopargo eta Gaitzerdi antzerki taldeetan. Astean hiru egunetan edukitzen ditut entseguak. Oso gustura nabil.

♦ Gaur Elgoibarren antzeztuko duzu berriro, aspaldiko partez. Zer sentitzen duzu?

Oso pozik nago, berezia izango da jende ezagunaren aurrean antzezteak, eta ilusio handia egiten dit. Guretzat, gainera, Gipuzkoan taularatuko dugun lehenengo aldia da. Bizkaian ibili gara batez ere, eta Madril aldean ere bai. Madril sariak ere eman dizkigute! eta horrez gain, Bilboko Fetabi antzerki jaialdia ere irabazi genuen. Zortzi bat sari izango ditugu honez gero. Eskerrak eman nahi dizkiot Elgoibarko Udaleko Kultura Sailari aukera hau eman digulako. Ia jendeak zer esaten didan! Espero dut obra ulertzea eta denei gustatzea.

Astelehenetik salgai daude Elgoibarko Izarrak abenduaren 28rako antolatu duen bertso-jaialdirako sarrerak

Abenduaren 28rako antolatu du Elgoibarko Izarrak urtero Eguberrien bueltan egin ohi duen bertso-jaialdia, eta sarrerak salgai daude dagoeneko. Bertso-saioa Elgoibarko Udalarekin lankidetzan antolatu dute.

Herriko antzokian izango da bertso-jaialdia, 22:00etan. Sarrerak astelehenean, hilaren 12an, jarri zituzten salgai, eta hilaren 23ra –gaur zortzi– arte eskuratu ahal izango dira, Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan lokalean. Epe hori amaitu

ondoren sarrerarik gelditzen bada, egunean bertan jarriko dituzte salgai Herriko Antzokiko leihatilan. Sarrerak 11 euroan jarriko dituzte salgai (10 eurotan Elgoibarko Izarrako bazkide direnentzat).

Aurten ere punta-puntako kartela osatu dute antolatzaileek. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Amets Arzalluz eta Unai Iturriaga arituko dira kantuan, Uxue Alberdi bertsolariaren gidaritzapean.

Inazio Bereziartua Musika Eskolakoek kontzertua eskainiko dute gaur parrokiari

Musika Eskolakoek ekintza sorta antolatu dute Eguberri bueltako egunotarako. Gaur, kontzertua eskainiko dute parrokiari, 20:00etan hasita. Musika Eskolako harizko instrumentuen taldeak, akordeoi taldeak, Musika Eskolako abesbatzak eta bandak parte hartuko dute, parrokiako abesbatzarekin batera. Abenduaren 24an, berriz, Olentzero eta Mari Dominginen kalejiran irtengo dira musika eskolako ikasleak euren instrumentuekin. Abenduaren 31rako, Gabon Zaharretako dantza saioa antolatu dute. 18:00etan izango da, Kalegoen plazan, eta urtarrilaren 3an, 17:30ean, kontzertua eskainiko dute San Lazaro egoitzan. Era berean, Errege bezperako eta Errege eguneko mezetan ere parte hartuko dute.

Nagusilanen boluntarioak behar dira, bakarrik bizi diren adineko pertsonak zaintzeko

Boluntarioz osatutako erakundea da Nagusilan, baina gaur dauden boluntarioak adinean aurrera doaz gehienak eta horregatik boluntario bila ari dira. Bakarrik bizi diren adineko pertsonen laguntasuna eskaintzeko sortu zuten Nagusilan, baina populazioa zahartuz doa, eta gero eta boluntario gehiagoren premia dute, seniderik ez duten eta laguntasun premian dauden pertsonak ere ugaritu egin direlako. Horregatik, bihar, hilak 17, kalera irtengo dira Nagusilanen berri ematera. King Kongen egongo dira, 11:00etatik aurrera, interesa agertzen duten guztiei informazioa banatzeko.



Su ta Garren 30 urteko ibilbidearen errebasoa egin zuen astelehenean Aitor Gorosabelek Mendaron

Aitor Gorosabel Su Ta Gar taldeko gitarra-jole eta abeslariarekin solasean aritu ziren astelehenean Mendaroko Gaztelekuan. Euskara, gazteria eta musika izan zituzten hizpide eta Su ta Garren 30 urteko ibilbidearen errebasoa egin zuten elkarrizketa formatoko solasaldian. *Maitasunari pasioa* euren azken diskoa ere aurkeztu zuen Gorosabelek, eta eskuin eskuko tendoia ebagi zuenetik estreinakoz gitarra eskuan hartu eta hiru kantu ere abestu zizkien Gaztelekura bildutakoek. Mendaroko Gaztelekuak eta Udalak elkarlanean antolatu zuten saioa.



Elena eta Maria Amaro ahizpek irabazi dute jaiotza lehiaketa

Domekan banatu zituzten Elgoibarren jaiotza lehiaketako sariak. Elena Amaro eta Maria Amaro ahizpek egindako jaiotza saritu zuen epaimahaia lehen sariarekin, eta Leire Eguren eta June Arregi iazko irabazleek egindako jaiotzak jaso zuen bigarren saria. Hirugarren jaiotzik onena, berriz, Saioa Etxeberria, Maddi Agirre, Ane Agirre eta Uxue Etxeberriarena izan zen. Lehenengo zortzi sarituek jaso zuten garaikurra, baina parte hartzaile guztiak jaso zuten opari poltsa bana. Urtarrilaren 9ra arte San Bartolome ka-



lean jarriko dituzte ikusgai, Skandalo denda egon zen lekuan. Guztira 16 jaiotza aurkeztu zituzten lehiaketarako.

Elgoibarko Udalaren egutegia aurkeztu dute

Aurkeztu dute Elgoibarko Udalaren 2017rako egutegia. 50 herritarrek parte hartu dute lehiaketan, eta guztira, 270 argazki aurkeztu dituzte. Udaleko eta Ongarri elkarteko ordezkariak osatu dute epaimahaia eta hamabi argazki aukeratu dituzte egutegi handirako, eta beste bat txikirako. Sarituak ondorengoak izan dira: Eulogio Mancebo (bi argazkirekin), Antonio O. Curbello, Coro Fernandez, Iñigo Etxaniz, Maitane Huidobro, Arkaitz Mujika, Oier Ramos, Mikel Zengotita, Aitor Agirrezabala, Gurutze Ariznabarreta, Julen Ansola eta Mireia Iriondo (Egutegi txikirakoa). Saridunek 70na euro jaso dituzte sarizat. Egutegiak Original diseinu etxeak inprimatu ditu. Egutegi handiak, 3.000 ale, elkarte, eskola, erakunde eta abarretan banatuko dituzte, baina Kultur Etxean eta Arreta Bulegoan ere eskuratu ahal izango dira; txikiak, berriz, 6.000 ale, herriko postontzietan banatuko dituzte.

Egutegi handian, Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleen marrazkiak ere ageri dira. Izan ere, laugarren urtez antolatu du Udalak egutegirako marrazki lehiaketa. Marrazki lehiaketan LH5eko 136 ikaslek parte hartu dute, eta epaimahaia Udaleko ordezkariak eta Gemma Monreal margolariak osatu dute. Saridunak hauek dira: June Fernandez, Erika Muñoz, Markel Gorosabel, Maialen Labrador, Elsa Zubiaurre, Omaira El Majjaoui, Ainhoa Arnedo, Nora Canton, Nahia Carrillo, Urtzi Alonso, Eneko Etxaniz eta Nora Gurrutxaga.



Euskal Herriko mus txapelketa, hilak 30ean

Hilaren 30ean, 16:00etan, jokatuko da Euskal Herriko mus txapelketa, Lanbroa tabernan. Interesatuak 20na euro ordaindu behar dituzte bikoteko: www.ehmus.es.

Errege Magoen desfilearako izenematea, hilaren 21ean

Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako neska-mutilak parte hartu ahal izango dute Errege Magoen Elgoibarko desfilean, eta interesatuak abenduaren 21ean eman beharko dute izena Gotzon Garate Udal Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara.

Urtarrilaren 2an etorriko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak urtarrilaren 2an etorriko dira Elgoibarrera, *Tipi Tapa Korrika* ikuskizunarekin. Atzo jarri zituzten sarre-rak salgai Herriko Antzokiko lehiatilan eta gaur ere zabalduko dute lehiatila. Gaur denak salduko ez balira, egunean bertan jarriko dituzte salgai lehiatilan. Helduek zortzi euro ordaindu beharko dituzte sarrerako, eta haurrek, berriz, sei euro. Gazte Txartela dutenei eta Lur dotekako bazkideei %20ko deskontua egingo diete.

Elgoibarko meza, Euskal Telebistan hiru astez

Elgoibarren grabatutako meza emango dute ETBn hiru domekatan. Zapatuan grabatutako mezak izango dira, baina telebistan domekan emango dituzte. Joan zen astean eman zuten lehenengoa.

Incognita Patagonia espedizioa saritu dute Fedme Sarietan



Urte osoan egin diren eskalada eta alpinismo jardura garrantzitsuenak saritzen dituzte FEDME Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioaren sarietan. Europa kanpoko alpinismoa atalean, Incognita Patagonia espedizioaren barruan egindako eskalada jarduerak saritu dituzte. Eñaut Izagirre geografo elgoibartarrak, Ibai Rico eta Evan Milesekin batera, Txileko Patagonian barrena, esploratu gabeko lur eremuetan egin zuten espedizioa da Incognita Patagonia. Berrogei egunez belaontzi bat babesleku zutela, Hoste uharteko izotzen atzerakada konfirmatu zuten Incognita Patagonia espedizioko kideek, eta inguruko estazio meteorologikoen sarea martxan jartzeko tartea hartu zuten. Aurrekoiez gainera, esploratu gabeko Cloue izotz eremua zeharkatu zuten eta inork zapaldu gabeko tontorretara igo ziren Miles eta Rico. Hain justu ere, azken jardura horiek saritu ditu Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioak. Espedizioan jasotako irudiekin Eñaut Izagirrek zuzendu duen filma estreinatuko dute bihar, abenduaren 17an, Bilbao Mendi Film Festival entzutetsuan. Bilboko BBK aretoan izango da estreinaldia, 11:00etan.

Domekan jokatu dute Mendaroko Giza Proba taldearen erronka

Mendaroko Tope Naxiok Giza Proba Taldea Renault 4L auto zahar bat tiraka eramaten ahaleginduko da Lizarpe gaineraino. Domeka honean, hilaren 18an, izango da ahalegina, 11:00etan hasita. Bost kilometroko ibilbidean %10eko desnibela gainditu beharko dute, 800 kilo inguruko autori tiraka.



Haur krosa jokatu dute bihar Mendaron

Mendaroko Txirriindulari Elkartek haurren artean kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz antolatzen du Gabonetako Haur Krosa, eta bosgarren edizioa antolatu dute biharko (abenduak 17). Mendarozabaletik hasiko da proba 18:00etan. 2005. urtetik 2011ra bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta lasterketak adinka egingo dituzte. Izenematea doan izango da, eta lasterketa hasi baino ordu-erdi lehenago egin behar da irteeran. Parte hartzaile guztiek domina eta gozoki poltsa bana jasoko dituzte bukaeran.



Abian da Nazioarteko Xake Txapelketa



Guaztenean hasi zen Elgoibarko 26. Maisuen Nazioarteko Xake Txapelketa, eta abenduaren 20ra bitartean arituko dira lehia hamar xakelari, tartean Gustavo Barrenetxea elgoibartarra. Barrenetxeak laugarren urtez jarraian hartuko du parte. Parte hartzaileen artean da iazko txapelduna ere, Ider Borya gazte frantsesa. Adituen esanetan, Aleksa Strikovic serbiarra da txapelketa irabazteko favorito argietako bat, baina aurkari gogorak izango ditu: Michael Oratovsky errusiarra, Sinisa Drazic serbiarra, Karen Movsziszian armeniarra, Paul Velten frantziarra, Sabrina Vega eta Ismael Teran espainiarrak eta Santiago Gonzalez bilbotarra. Udaletxeko pleno aretoan jokatuko dituzte partidak egunero, 16:00etatik aurrera. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, Zubi-Ondo Xake Taldeak eta Xakeko Euskal Federazioa dira txapelketako antolatzaileak. Eskola Kiroleko Xake Txapelketa ere bihar, hilak 17, hasiko da, 16:00etan. Zubi Ondo Xake Taldearen egoitza, Juan Mugertza kalean, jokatuko dituzte partidak.

Maite Maiorak 100 kilometroko mendi lasterketa irabazi du Murtzian



Maite Maiora korrikalari mendarorarik mendi lasterketa luzeenetara ere ondo moldatzen dela erakutsi du. Murtzian jokatu zen Falco trail proba irabazi zuen abenduaren 3an. 153 lagunek parte hartu zuten 100 kilometroko proban, eta Maiorak bosgarren postua eskuratu zuen, 12 ordu eta 23 minutuko denborarekin. Ordu bete baino gehiagoko aldea atera zion helmugara ailegatu zen bigarren emakumeari, Ana Cristina Constantini. Gizonezkoetan Kim Collison ingelesa gailendu zen, 11 ordu eta 21 minutuko denborarekin. Murtziako proban lortutako puntuei esker Mont Blanceko Ultra Trail ezagunean parte hartzeko aukera izan dezake Maiorak, parte hartzeak ilusioa egiten dion proba baita.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 3 – Mutriku 2 (Oho. erreg.)
 Ikasberri 2 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
 Amaiak Bat 3 – Elgoibar 1 (Oho. jub.)
 Elgoibar 1 – Ikasberri B 5 (Jub. 1. maila)
 Orioko 4 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)
 Elgoibar 2 – Hondarribia A 2 (Inf. 1. maila)
 Oiartzun 1 – Elgoibar 2 (Infantil Txiki)
 Orioko 3 – Elgoibar 3 (Alebinak)

ARETO FUTBOLA

Guadalajara 5 – Concepto Egile 5 (Nazional B)

SASKIBALOIA

Viento Sur 47 – Zarautz Sharks 53

ESKUBALOIA

Gure Auzune 32 – Alcorta Forging Group 26 (Senior giz.)
 Aiala 24 – Lauko Elg. 18 (Senior emak.)
 Pizzeria Salento 33 – Soraluze BKE 26 (Senior giz.)
 CB Urola 21 – Bankoa Elg. 26 (Kad. mut.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 18
 12:30 Debarrena Concepto Egile – C.D.
 Juventud Del Círculo (Nazional B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17
 10:00 Elgoibar – Anaitasuna (Inf. Txiki)
 12:00 Elgoibar – Zarautz (Oho. kad.)
 16:30 Elgoibar – Zestoa (1. erreg.)
 Domeka, 18
 10:00 Elgoibar - Soraluze - Amaiak Bat – (Futbol Eskola)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 17
 10:00 Modeltek – Ordizia (Inf. neska.)
 11:15 Txarriduna – Pulpo (Inf. mut.)
 12:45 Bankoa – Pulpo (Kad. mut.)
 16:00 Dario – Bidasoa (Kad. neska.)
 17:30 Cometel – Bar Alaiiki (Kad. neska.)
 19:00 Lauko – Basauri (Senior emak.)
 Domeka, 18
 10:00 Astigarraga – Errotabarri (Kad. neska.)
 11:30 Tecnifuelle – Errotabarri (Jub. neska.)
 13:00 Deca – Leizaran (Jub. mut.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Domeka, 18
 10:00 Bacalaos Elg. – Eibar A (Inf. neska.)

Arg.: FOTOSU

LANA.....

Eskaerak

Nagusiak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta formakuntza ditut.

☎ 671 989 434

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 631 724 749

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 692 314 985

Garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko prest nago, interna moduan ere bai.

☎ 602 193 095 / 612 216 458

Nagusiak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut etxe eta portaletan. Plantxa lanak ere bai.

☎ 631 098 995

Garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko prest nago. Gauzez zein orduka. ☎ 631 506 763

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 631 790 555

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua. ☎ 667 625 233

DBH eta Batxilergoko hizkuntza ikasgaietarako klase partikularrak ematen dira: euskara, gaztelera, inglesa eta latina. ☎ 692 277 044

Nagusiak edo umeak zaintzeko, etxe lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago.

☎ 612 216 458

Nagusiak edo umeak zaintzeko, etxe lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago.

☎ 602 193 095

Garbiketa lanak egiteko prest: elkarteak, portalak, etxebizitzak,...

☎ 603 237 932

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Arratsaldez, orduka. Esperientzia handia.

☎ 654 304 337

Gauzez, ospitalean, gaixoak zaintzeko prest.

☎ 688 659 575

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 653 569 293

Eskaerak

Zerbitzaria behar da. Curriculumua Sua tabernan utzi.

ETXEBIZITZAK..... Alokairua

Pisu edo ganbara bat hartuko nuke alokairuan. Bi logelakoa gutxienez.

☎ 631 098 995

Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunean. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia. ☎ 689 781 069

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Jausoron.

☎ 647 216 314

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin. ☎ 609 951 243

BESTELAKOAK.....

Karakate mikologia elkarteko nire bazkide-tza partea traspasatuko nuke.

☎ 688 605 253

Goiko Errota elkarteak bazkide berriak behar ditu. ☎ 626 797 027 (Julen)

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitatean gastuak banatzeko portzentajeetan ezberdintasun handiak daude. Lehenengo solairuko etxebizitzetakoek bigarren solairukoek baino gehiago ordaintzen dute, eta horiek, aldi berean, azken solairukoek baino gehiago. Bizilagunen azkeneko batzarrean gastuak etxebizitzaren metro koadroen arabera banatzea proposatu zuten. Nola egin beharko genuke aldaketa hori kuotetan?

Edozein kasutan, aldaketa hori profesional batek egin beharko luke, Eratze Tituloa aldatzea eskatzen duelako.

Legeak dio Eratze Tituloan edota komunitateko estatutuetan jasotako arauak aldatzea eskatzen duten akordioak etxe-jabe guztien oniritziz hartu behar direla; garbiago esateko, parte-hartze kuoten gehien-goaren oniritziarekin. Beraz, aldaketa horiek egiteko ezinbestekoa da etxe jabe guztiak bilera batera deitzea, denen oniritzia lortzeko.

AHOLKUA: Aldaketa horiek egin ostean, kuota berriak Jabetza Erregistroan inskribatu behar dira, ez dadin gero hirugarren bat etorri beste eskubide batzuk aldarrikatuz. Beraz, egin diren aldaketa guztiak jakinarazi behar zaizkie etxe jabe guztiei.

ROSALBA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Hegoa**, 9an 6 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki Arharenen partez.



Zorionak, **Maddi**, zure zazpigarren urte-betetzean. Aita-txo, amatxo eta batez ere, Iratiren partez.



Zorionak, **Beñat**, abenduaren 11n 6 urte bete zenituelako. Ederki pasatu genuen familia giroan.



Zorionak guraso, aiton-amonak, osaba-izeko, lehengusu eta kuadrillakoen partez. Muxu erraldoi bat



Zorionak, **Nora!** Bihar 8 urte! Ondo pasa familian eta lagunekin. Muxu asko, bereziki, Roke eta Markelen partez.



Zorionak, **Nahia!** Gure printzesak 4 urte! Ondo pasa. Muxu bat etxekoekin eta bereziki Hodeiren partez.



Zorionak, **txa-peldun!** Azkenean bete dituzu 7 urte! Ondo pasa eguna. Etxekoekin eta bereziki Unaxen partez.



Zorionak, **txa-peldun!** Bihar 9 urte! Ondo pasa zure egunean. Patxo handi bat Unairen eta etxekoekin partez.




Zorionak, **June**, ostegunean 8 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztien partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Klara!** Ondo pasa Santo Tomas Egunean. Zure nebaren eta lehengusuen partez, muxu bat.



Zorionak, **Lea!** Muxuak familiako guztien partez.



Zorionak, **Maria eta Oihan**, gaur 14 eta 5 urte bete dituzuelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Gida komertziala  

Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala prestatzen dihardugu. Zure enpresaren datuak gidan **DOAN** agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugulako, eskertuko genizuke gurekin harremanetan jarzea:

gida@elgoibarkoizarra.eus
644 765 640 / 943 743 704

Interneten ere **bai!** 

Uzuri ELGOIBAR - DEBA **optika audio**

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

 **VARILUX 40**

Mugarik gabeko ikusmena momentuan

**IRAULTZA BERRIA
LENTE PROGRESIBOETAN**

16 BARIXAKUA

18:00 Gurasoentzako formakuntza: *Jolasean eta kirolean gure seme-alabekin*.

Unai Arrietak eskainiko du. Antolatzaileak: Kalamua, EIGK eta Ongizate Saila.

18:30 Alejandro Martinen erakusketa: *Argazkiak 3Dn*. Kultur Etxean, hilaren 31ra arte.

20:00 Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokian.

20:30 Antzerkia: *Horacios y curiacios*. Alopargo teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

17 ZAPATUA

10:00 Apaingarrien tailerra. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

13:00 Gure Esku Dago. Argazkia aterako dute, eta sinadura bilketari ekingo diote. Kultur Etxe aurrean.

18:00 Haur Kroa. Mendaroko Txirindulari Elkarteak antolatuta, Mendarozabal auzoan.

18 DOMEKA

11:00 Tope Natxiok Mendaroko herri kirol taldekoen desafioa.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, San Bartolome parrokian. San Bartolome parrokiaren 300. urteurrenaren barruan. Jose R. Pascual Bilboko Udal Musika Bandako zuzendariak zuzenduko du kontzertua.

1. *Ralph Flourish for wind Band* (V. Williams).
2. *Irish tune for county derry* (P. Grainer).
3. *Toccata for band* (F. Erickson).
4. *Mesopotamia* (Jose Velez).
5. *Pacem* (R. Spittal).
6. *The saint and the city* (J. de Haan).
7. *Panis Angelicus* (Cesar Franck).
8. *Hator, Hator* (Tomas Aragues).

16:00 Eskola Kiroleko xake txapelketa. Elgoibar Xake taldearen elkartean.

19 ASTELEHENA

16:00 Erakusketa: Elgoibarko Arte Erijijsua. San Bartolome parrokian, urtarillaren 17ra arte.

20 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra, Haizeak antolatuta. *Rojo y Negro*. Consuelo Carrerakin, Udal Liburutegian.

20:00 Xake Txapelketako sari banaketa. Udaletxeko pleno aretoan.

21 EGUAZTENA

17:30 Parrokiako jaiotza. Parrokiako lokalean.

19:30 Kirol Federatuaren Urteko Sariak. Musika Eskolan.



ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AJURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau oparituko dizugu: Tupperware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 1,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR,
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72

CA **bankoia**
CREDIT AGRICOLE

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK	09:00 - 22:00 16 Barixakua BARRENETXEA 17 Zapatua IBAÑEZ Goizez, BARRENETXEA 18 Domeka IBAÑEZ 19 Astelehena GARITAONANDIA 20 Martitzena ETXEBERRIA 21 Eguaztena ORUESAGASTI 22 Eguena YUDEGO 23 Barixakua GARITAONANDIA	22:00 - 00:00 Astelehenetik domekara ETXEBERRIA (Elgoibar) Santa Ana, 1 Tel.: 943 740 140	* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638 * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384
		00:00 - 09:00 IRAUNDEGI (Eibar) Fermin Calbeton, 19 Tel.: 943 201 110	

Zinea (Herriko antzokian)

<p>'1898 Los últimos de Filipinas' 10 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS) 11 domeka 19:00 12 astelehena 21:30</p>	<p>'Trolls' 18 domeka 16:30</p>	<p>'Rams. El valle de los carneros' (Ongarri) 22 eguena 21:30</p>
---	--	--



943 744 112

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



<p>JVC 32" LT-32VH53B TELEBISTA A+ / SMART TV / 600HZ CMP 2 HDMI / 1 USB</p>  <p>259€</p>	<p>DELONGHI ESSENZA KAFETERA NESPRESSO SISTEMA 19 BAR-KO PRESIOA THERMOBLOCK / 1L-KO EDUKIA</p>  <p>59€</p>	<p>ROOMBA 621 GARBIGAILUA AEROVAC TEKNOLOGIA (garbiketa sakona) ADAPT NABIGAZIO SISTEMA ADIMENDUA AEROVAC AIRE SISTEMA DEPOSITUAREN EDUKIERAREN OPTIMIZAZIOA</p>  <p>360€</p>
---	--	--

Derdako prezioak

Beti zurekin. Eguberri on!

MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Argazkiak esaten dit, *askatasuna*. Euskaltzaindiaren Hiztegiak dio 'Eragozpenik eza, traba gabezia'. 'Besteren mendeko ez denaren egoera' eta 'Zapalkuntzarik eza'. 'Atxiloturik ez dagoenaren egoera' eta 'gizabana-koen oinarritzko eskubidea'. Askatasuna da niretzat mendira joan eta gure bazterrak ikustea. Orobat, etxeko txokoan yoga pixka bat egitea. Danele Sarrigarteren Angela Davisetikoa erostea Durangoko Azokan. Eta irakurtzea, askatasuna bortizkien zapaltzen zen esklabotza garaian ere, emakume beltzek bazutela euren txikian matxinatzeko indarririk. Askatasuna da Ibon Sarasola entzutea eta irakurtzea. Eta askok, gehienek, sumindura eta probokazioa ikusten dituzten hitzetan, autokritika eta eboluzioa ikustea. Eta sentitzea badela jendea bizi dena euskarari emana, euskararekiko miresmenez eta Euskal Herriarekiko gogoz. Askatasuna da 'Zir-

Korrika' entzutea. Eta hura entzunez dantzan ikustea oinak zangozabatu dituztenak ere. Askatasuna da irakurtzea Uxue Alberdiri eginiko azken elkarrizketa, 'Gara'n, Literatura Sariaren harira: aberats euskaraz eta euskarari buruz; ausart beldurrez eta bizitzaz. Askatasuna da entzutea Jon Maiaren 'Kantu bat gara'. Eta ikustea 8 minutuan euskaraz idatzitako hitzek nola hunkitu zuten mundu bat, are euskaraz ez zekiten asko ere. Askatasuna da entzutea Lorea Agirre. Esanez euskara hautu bat dela, politika dela. Eta bagarela nor. Esanez ezin gaitezkeela izan feminista euskaltzale izan gabe; ezta euskaltzale ere, feminista izan gabe. Askatasuna da telebista itzaltzea, isilaraztea irrati bat eta ematea ahotsa beste bati, edo erostea irakurle gutxien daukan egunkaria. Ezkututzen eta desitxuratzen saiatzen diren errealitate hori bilatzea eta ikusaraztea. Eta 'beste bat loturik deino, ez gara libre izango'. *Eskafandra* taldeari ongietorria eginez amaitu nahi dut; ikusarazi didalako menperakuntzak oro askatasunerako bidea direla.

“Askatasuna da telebista itzaltzea, isilaraztea irrati bat eta ematea ahotsa beste bati, edo erostea irakurle gutxien daukan egunkaria”



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoitzitako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak. Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu. Gureak ematen duen gozamina.

hazi
EUSKO LURRALDEAN
EKOIZTUTAKO ELIKAGAIEN
ERAKUNTZA ERAGILEA



EUSKO LEHIAKETA
GOBERNU BAIKO

ERAKUNTZA ERAGILEA
ERAKUNTZA ERAGILEA
ERAKUNTZA ERAGILEA

Abenduak 26, astelehena

16:00 - 17:30

tailerrak **KULTUR ETXE** parean
17:30ean Niala magoa Sotoan
(5 urtetik gorakoentzat)



Abenduak 28, eguaztena

16:00 - 17:30

tailerrak **KULTUR ETXE** parean
17:30ean Pello Añorga
ipuin kontalaria Sotoan
(4 urtetik gorakoentzat)



Antolatzaileak



ATXUTXIAMAIKA



Elgoibar Udala

Babeslea



ELGOIBAR UDALA



elgoibar

Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, IKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA GALA

Hezkuntza Politika eta Kulturaren Departamentua